

¿1 AÑO DE MÓVIL GRATIS ?

USURBIL

Giro ederra izan zen Sagardo Egunean

22.05.13 - 02:34 - :: **JOSU ARANBERRI | USURBIL.**

Usurbilgo Sagardo Egunak 32 edizio bete ditu jada. Igandean izan zen azkena eta eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere jai giroa izan zen nagusi egun guztian zehar herriko pilotaleku inguruan.

Hala ere, euriaren ondorioz dema plazan jarri ohi diren sagardo postuak frontoira eraman zituzten eta beraz, bi gune izan ziren sagardotegietako sagardoa edan ahal izateko. Herriko baserrietako sagardoa eta Gipuzkoako sagardogileen elkarteko sagardoak egon ziren frontoian, Askatasuna plazan, berriz, Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak.

Sagardo Egunean ohikoa den bezala 11:30ean hasi zen festa. Urtero-urtero omenduren bat izaten da Sagardo Egunari hasiera ematen dion lehen botila irekitzen duena eta aurtengoan Urko Manterolak izan du ohore hori. Urte askoan Sagardo Egunaren Lagunak taldean egun handi hau antolatzen aritu izan den herritarrek aurten utzi dio eginkizun horri eta bere taldekideek bera omendu nahi izan zuten. Ohikoa den zapiatz gain txapela ere jaso zuen Urkok lehen botila ireki aurretik. Orduz geroztik 15:00ak bitartean nahikoa sagardo edateko aukera izan zen.

Aurtengoan ere sagardo botatzaileen lehiaketak igandean Usurbila gerturatu zirenen arreta bereganatu zuen eta bertan Arantxa Unanue izan zen garaipena lortu zuena. Iñaki Agirresarobe izan zen bigarren eta Kerman Errekondo hirugarren.

Sagardorik banatu ez bazen ere, festarekin jarraitzeko aukera izan zen arratsaldean. Txaranga ibili zen herriko kaleetan zehar eta pilotalekuan, berriz, erromeri giroa jarri zuen Fan & Go taldeak.

Ostegun honetan, berriz, sagarrarekin lotutako beste ekimen bat izango da. 'I. Sagastiak Loretan' ekimenaren barruan antolatutako sagarkien dastaketa izango da Aitzaga elkarteak. Arratsaldeko 19:30ean hasita ikastaro modukoa eskainiko du Guillermo Castaños enologoak. Ekimen hau doakoa izango da.

TAGS RELACIONADOS

giro, ederra, izan, sagardo, egunean

Publicidad

**Movistar Fusión**

Fijo, móvil e Internet en una misma factura. Por 59,90€/mes, para siempre.

www.promocionmovistar.es**Retocamos tus fotografías**

Tus mejores recuerdos merecen una fotografía perfecta. Ahora desde 15 Euros

www.muchbetterpictures.com**amena.com Tarifa Móvil**

Por 7€/mes internet sin límites+sms, y llamadas a 1cént/min.

www.amena.com/Tarifa-7**¿Hotel? Trivago**

Compara hoteles entre más de 100 webs, encuentra tu hotel ideal y ahorra con trivago

www.trivago.es**DISQUS**Powered by **SARENET****diariovasco.com**

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuebe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y

ENLACES VOCENTO

ABC.es
El Correo
Elnotedecastilla.es
Elcomercio.es
SUR.es
Qué.es
La Voz Digital
ABC Punto Radio
hoyCinema
Infoempleo
Autocasion
Mujerhoy

Hoy Digital
La Rioja.com
DiarioVasco.com
Ideal digital
Las Provincias
El Diario Montañés
Laverdad.es
Finanzas
hoyMotor
Guía TV
11870.com
Pisos.com